



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-09-06

VIIURTEA 1.769 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Lizartzan herri bazkaria egin zuten eta Bedaion txikienek marrazkiak egin zituzten. ESTI EZEIZA

IRAILEKO ALDAPARI UMORETSU EUSTEKO

TOLOSALDEA Elduain, Lizartza, Alkiza, Bedaio eta Izaskun jaietan daude; gaur, Irigoien marka berria jartzen saiatuko da Bedaion <

«Etxera sekulako disgustuarekin bueltatu nintzen, mundua erori zitzaidan»

TOLOSA Patxi Caminosek ez zuen lortu Txindokira 12 aldiz igotzea 24 ordutan <



Heldu den udan berriz saiatuko da bere erroka gainditzeko. R. CALVO

Peñascal Fundazioaren kurtsoetan izena emateko aukera, hilaren 10era arte

TOLOSA Ostalaritza, arotza eta mekanizazio kurtsoak daude aukeran <

Zeberio II.ak ezin izan du Urrutiaren aurka, finalean <

MIGUEL OTEGI PILOTUA

«Etorkizunari begira ere hor jarraitzea gustatuko litzaidake»

ASTEASU Gaztea Formula Renault Europako Txapelketetan nazioarte mailan lehiatzen da <

Gizonezko bat erreskatatu dute Txindoki menditik

ABALTZISKETA Zaldi baten ostikada jaso zuen <

MAITRIKU LA Aitzol Udal Euskaltegia

Rondilla 34-8, 3.a
20400 TOLOSA
tel. 943651006 - 943652343
www.usdehnskolleregik.net
aitzoku@tolosakoudala.net



Brasilgo erritmoak Bonbereneatik

TOLOSA ■ Batukadaren erritmoak, Brasilgoak, entzun zitezkeen Tolosako kale ugarian atzo. Hauek Bonbereneatik zetozen. Izan ere, Mulanbo perkusio taldeak antolatuta, mota honetako instrumentuen eta musiki-

karen inguruko topaketak egin zituzten. Brasildar musikari bat etorri zen, bertakoei erakusteko eta azalpenak emateko. Ostiral iluntzean hasi ziren eta gaur oraindik ere jarraituko dute. **E. EZEIZA**

E Eztabaida info

Hemendik aurrera, autokarabana eta karabanak San Esteban auzoko aparkalekuan bakarrik utzi ahal izango dira. Zer iritzi duzu?

■ **Tolosar bat.** «Bazen garaia horrelako neurri bat hartzeko. Eroski

aldean, kotxea uztea errazagoa izango ote da orain? Izan ere, orain arte, ia ezinezkoa zen. Batzuk, aparkaleku pribatu bat balitz bezala, tokia hartua baitzuten bertan. Karabana astean, eta hau ateratzean, astean ibiltzen duten kotxea utziz asteburutan».

■ **Jabe bat.** «Nik ez det ulertzen

hainbesteko iskanbila sortzea autokarabanan inguruan. Zenbat daude denera? Kotxeek gehiago okupatzen dute eta inor ez da keitzten eta hor Maxin kotxe asko daude ebai beti leku berdinean. Edo denetarako hartzen dira neurriak edo bestela gauzak dauden bezela utzi...».

Udazkenari eta neguari begira jarri dira dagoeneko postuak

Azoka ■ Abuztuko oporraldiaren amaiera izan zen atzokoan eta saltzaileek eskaintza ere zabaldu zuten

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna guztiz bete izan zen, bai erosleen kopuru aldetik, baita eskaintzarenaretik. Argi dago gehienak itzuli direla beraien oporretik, eta saltzaileek hau jakinda, eskaintza kopurua gehitu egin dute.

Lehen berrikuntzak postuetara heldu dira

Garaia aldaketa ere nabaria izan zen berrikuntzen aldetik.

Atzematen zen pixkanaka udazkena sartzen ari dela, eta ez genuen dudarik izan fruta zerrenda ikusita. Udareak, pikua, eta aurtengo lehenengo urra berriak ikusi ahal izan ziren azokan. Ikusitako bertako ondoak eta ziza horiak ere honen froga bihurtu ziren.

Udako barazkiak oraindik salgai

Halere, udarako barazkiak oraindik egundoko puntuan daude. Tomateak, esaterako, izugarriko itxura eskaini zuen, baina oso kalitate onekoa zen, eta piparra ere oso puntu onean aurkitu genuen.

Berdura plazan ziklamenak eta azaleak ugaritu egin ziren, udazkenari eta neguari begira.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Mer.	Gares.
Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Zirklamena	5,50	-
Zainzuria	2,80	
Salbia	1,00	1,20
Dipladenia	10,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddo	14,00	-
Onddoak potetan	9,00	-
Ziza horia	20,00	-

Fruta		
Konferentzia udarea	1,00	-
Arana	2,00	-
Urra	2,00	3,00
Pikua	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Kanela udarea	1,00	-

Barazkiak (sorta)		
Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Baratxuri freskoa	1,50	-
Porrua	1,00	4,00

Barazkiak (kiloa)		
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	2,50	3,00
Porruak	1,00	4,00
Ibarrako piparra	4,00	6,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-
Arrautzak	1,00	1,50

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Perretxikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak (Kilo)		
Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuri	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00

Barazkiak (sorta)		
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-

Barazkiak (Kilo)		
Ahuntz Gazta (200 grs.)	3,00	-
Arrautzak	3,50	-
Azukrea	3,35	-
Mermelada	3,00	3,60

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Z Zurea da Hitza



■ **Beldurtuta lapurretekin.** «Azkenaldian izan ditut hainbat lapurretan berri. Nire ezagun bati etxera sartu eta lapurtu egin diote dirua, amaren bitxiak eta telebista. Auto-karabana aparkatuta zuen lagun bati ere oso-osorik lapurtu diote, Tolosako denda batean ere pasa den astean sartu omen ziren,.... Azkenaldian beldurra gero eta handiagoa da jendearen artean eta ez zait gutxiagorako iruditzen. Inseguridade horren aurrean ezin al da ezer egin? Behintzat jendeak etxek ongi itxi ditzala, eskualdean gero eta gehiago dabilta eta lapurretan...».

■ **Zubia niri egokia iruditzen zait.** Pasa den ostiralean irakurri nuen Arabako etorbideko zubi berriari buruzko kritika bat. Hombrea, estetikoki eztabaidatu daiteke ea polita den edo ez (niri pertsonalki nahiko txukuna iruditzen zait, estetikoki diot) baina lurte aldean bizi garenontzat lotura ona dela iruditzen zait. Maxi Eroskia joan nahi dutenentzat ere zubi horrek lagunduko duela iruditzen zait. Garai batean zubia ere hor zegoen eta oinezkoiei preferentzia ematen diela iruditzen zait. Herriko azato guztiak gerturatzeko modu egokia iruditzen zait.

» Iritzia

Esti Amenabarro Iraola
Remiren laguna

«Gazteago esnatzen da goizero pertsona ona»

(Jose Marti)

Remi esnatzen denean gure oroitzen minduan, gure oroitzen oraindik urratuan, faltak betetzen ditu billabonatarren etxeak. Beste guztien penak gozotzen zituen laguna, mila aldiz ohore zure bihotz erraldoiari. Beste guztien arazoei buru egiten zien ordezkari duina, aintza zure bular lehertuari. Entzun zenituen azken hitzak, ordenaz arduratzen omen diren miserablen laidoak eta bur-lak, horiek ez hartu kontuan: entzun gure negarrak eta gure harro-tasuna! Koldar horiek esandakoak eta egindakoak, ez itzazu zurekin eraman: eraman itzazu gure mu-suak, malloz gaziak!

Remi jeikitzen denean gure oroitzen suminduan, eta esaten diogunean ez dagoela eskubiderik, hogeita zazpi urte zituela, dena bizitzeko oraindik, irribarre egiten digu: gehiago bizi izan naiz ni hogeita zazpi urtean, beste asko bizi guztian baino. Remi bizi izan zen berretzat eta ingurukoentzat, ho-

rregatik bizi izan zituenguztien bizitzak batera. Horregatik da orain oinazea hain sakona, eta ondoren izango da gomuta hain oparoa.

Remi abiatzen denean Udaltxera gure oroitzen xamurretan, han dauka zain bukatu gabeko lana, hurrengo ardua. Burutu gabeko amets zati horietan guztietan ere bere marka igartzen da oraindik: konstantzia, metodoa, elkar-rrizketa, gustua, maitasuna. Asko ageriko ekintzak izan dira, beste asko bulegoko lan isil, iIun eta esker txarrekoak. Botere goserik gabe egindako lan hori guztia, denon artean jarraituko dugu. Beharra dutenak lagunduko ditugu, umiltasunez. Herriko Etxean jarritako hil-kaperaren aurrean nabaritu dugu halako sentipen arrarobat, zor baten antzekoa. Eta erabaki dugu, guztiok batera eta bakoitzak bere baitan, zuk egingo zenukeena egitea, segitu, ahitu gabe, burruka eder eta luze honetan.

Eguna sartu eta gero Remi itzultzen denean etxera gure oroitzen alaietan, ileak lazten zaizkigu neska lagunarengan eta sendian pentsatzen dugunean. Jakin dezazuela horrelako gizona, horren amultsua, soilik sortu ahal izan dela, eta hazi, eta aberastu, euskal familia zuzen eta maitabera bate-

an. Orain gogorra izan daiteke onartzea, baina betetasun horrek bizitza guztian lagunduko dizue, San Inazio egun guztiak gozotuko dizkizue zertxobait. Villabonako herriak akorduan edukiko zaituzte beti.

Eta Remi badoanean kalean behera gure oroitzen sinesten zailetan, kalean jendeari kasu egiten dionean, ohartzen gara erraza zela guztiz mutil hura maitatzea, erraza ezagutzea, eta ezinezkoa izango dela ahaztea. Beti umoretsu, beti baikor, momentu itzelako oparitu dizkigu. Beti minutu bat edozeinentzat, heriotzaren orduan bertan ere maitatzeagatik isildu nahi izan zuten.

Isildu nahi izan gaituzte. Jai egunetan ez dute bakerik hartu harik eta bortsak herriko seme bat eraman duen arte. Remi: maitatzeagatik eraman zintuzten heriotzaren ahora, eta gezurra bota dute zure gainera gero. Uste dute guk ez dakigula, edo ezin esan dezakegula, zergatik geratu zitzaizun bihotza betiko. Baina ikusi duzu Udaltxean, zure bigarren etxean, zintziliku duguna? Bihotza itzali zizutenek ez dute sekula zure irribarra itzaliko.

Maita zaitugu, Remi, eta beti maiteko.

Txokala Remi!

» Iritzia

Amagoia Agirre eta Hodei Galarraga
Villabona

Ni Villabonakoa naiz, Hodei Galarraga. Nere amatxo eta aitaxo triste daude, izeba Estik bihotzean min dauka eta koloredun tiritat bat jarri diot bularraldean. Aitoneta amonak ez naute baratzera eramaten.

Kaliam polizia dago eta pistola asko daukate, gixon beltzak eta handiak dira eta niri beldurra ematen dit. Paretian nire lagunak Manex, Mikel, eta nire aitaxo daude. Eta orain Remi, nire lagun Remi.

Remi asko daude paretian, baina bea ez det gaur ikusi. Atzo bai, atzo txokala egin zian. Amatxori galdetu diot nun do Remi?

Eta amatxok ilargira joan dela esan dit betiko. Baina nire eskua txikia da eta ez da ilargiraino iristen. Irtisiko da maitasuna?

Ilargiraino eta bueltan maita zaitu Remi.

G Gutunak

Zensurarik ez! Bazterketa politikorik ez!

Orain gutxi, Jose Miguel Gomez Elosegik Tolosako Udaleko zinegotzi kargua utzi zuen eta berriki, Nerea Letamendiak hartu du harek utzitako kargua. Ekaineko Osoko Bilkuran honen inguruan gure eritzia ematen saiatu ginen, baina Alkateak hitza ukatu zigun, bere ohiko jarraera baztertzailan jauzi kualitatibo arduragabea emanaz.

Gaurdaino, baldintzarik gogorrenetan ere, Ohiko Bilkuratan gure eritzia ematen saiatu gara, tolosarrentzat garrantzitsuak diren gaietan eta beti herritar guztien interesen alde. Adibidez, gure parte hartzeak aurtengo tasa eta zergen igoera neurrigabea ekidin zuen, krisia ahulenen bizkar erortzea ekidin ere.

Baina orain, Eusko Jaurlaritzako agintari berrien aurrean merituak egiten tematu dabil gure Alkatea, "Rudolf" Ares Barne Sailburuarekin «absoluta sintonia» (abuztuaren 28ko Noticias de Gipuzkoa) agertzera. «Erabateko adostasuna» Remi Aiestaranen heriotzaren erantzule politikorenarenekin...

Izan ere, Jokin Bildarratzek ederkigorputzen baitu PSE-PP bikoteak nahiko lukeen Eusko Al-

derdi Jeltzalea, Ezker Abertzalea jipoituz eta guardiazibil eta torturazailak omenduz, Espainian eroso egoteko ahaleginetan dabilen hori.

Hala ere, zensura guztien gaine-tik, Ohiko Bilkuran adierazi nahi genuena jakitera emango dugu, prentsa bidez bada ere.

Orain bi urte, 2007ko maiatzean, 2.000 tolosarrek guk ordezkatzaren duguin aukera politikoiari eman zioten babesa. Ondorioz, lau zinegotzi izatea zegokigun, tartean J. M. Gomezek okupatu izan duena eta orain Nerea Letamendiak okupatzen duena.

Gogorarazi behar dugu ez bata, ez besteak, ez dutela zilegitasunik, herritarrek eta botoek ematen du-

ten zilegitasunik, kargu hori okupatzeko, zilegitasun horren guztien jabe Eider Elduairen gure ki-dea baita.

Bi urtetan zehar etengabe aldarrikatu dugu zinegotzi lapurren dimisioa eta zilegitasun demokratiakoaren berrezarpena. Gure ustez, J. M. Gomezaren dimisioak oztopo haundi batezabatu eta aukera on bat zabaltzen zuen bide horretan. Aitortu behar dugu Nerea Letamendiaren kargu hartzeak asko harritu gaituela. Harritu gaitu politikoki eta harritu gaitu pertsonalki.

Eusko Alkartasunaren barne zatiketa errespetu osoz jarraitu dugu, nolaez. Baina pentsatzen genuen egoera berri honek, gutxienez, hitz egiteko aukera irekitzen

zuela. Are gehiago, guztiok, antza, nahi dugun abertzaleon arteko indar metaketak lehenik eta behin elkarren aitortza eta errespetua behar duelako. Ez da horrela izan eta tristuraz dakusagu. Barne arazoak, beharrak eta miseria izan daitezke jokabide horren aitzakia. Aitzakia tristea, edonola ere.

Eta ez dugu pertsonalki ulertzen. Ez dugu ulertzen Nerea Letamendiak Eider Elduairen zinegotzi kargua lapurtzea. Ez dugu ulertzen pertsona gazte eta prestatu batek legearen, bidegabea eta arrotza, eta zilegitasun demokratiakoaren arteko aldea ez ikustea. Eta ez dugu ulertzen bere burua aber-tzailatzat duenak Euskal Herria

«birkonkistatzeko» egindako lege bat haintzat hartzea, horrelako erabakiak baitira "Alderdien Legeari" geratzen zaizkion euskarri bakarrak.

Beste pauso bat, beraz, norabide okerrean. Azkena izan bedi.

Antton Izagirre, Eider Elduaire, Hektor Espin eta Silvana Ostiza.

Tolosako Ezker Abertzaleko hautetsiak.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da amona bat zaintzeko. Interesatuek 649 625977 telefono zenbakira dei dezakete.

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Interesatuek dei 679 819042 telefono zenbakira dei dezakete.

ALOKAIRUAN

■ **Pisua.** Pisua alokairuan. Eraikin berria, igogailua, logelak, jangelagongela. Tolosako Alde Zaharrean kokatua. Interesatuek deitu 665 709380 telefonora (arratsaldez).

@ X. HITZA ARGAZKI

LEHIAKETA. Asteartetik larunbatera bitarte Hitzak bere lehiaketara heltzen diren argazkiak argitaratuko ditu. Horretaz gain, gure webgunean ikusgai daude orain arte heldu diren guztiak. Paisaiak, eraikuntza ikusgarriak, beste herrialdeetako ohiturak, mendiak, itsasoa,.... denetarik topa daiteke argazki hauetan. Ez egin duda eta bidali zurea ere. Sari interesgarri eta potoloak daude aukera. Irailaren 17ra arte duzu horretarako aukera.

www.tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Sekulako disgustuarekin itzuli nintzen etxera»

Tolosa » Patxi Caminosek ez zuen bere buruari jarritako erronka egitea lortu, azkenean sei aldiz igo zuen Txindoki.

REBEKA CALVO

Eguraldi kaskarra izan zen pasa den abuztuaren 8an. Eguna lainotuta eta heze argitu zuen eta ondorioz, Txindokiko bidea erabat lo-kaztuta zegoen. Hau ikusita Patxi Caminosek (Tolosa, 1973) atzeratu egin behar izan zuen Txindoki 24 ordutan gutxienez 12 aldiz igozteko zuen hitzordua. «Honek gehiago urduritu ninduen», argitu du Abaltzisketan bizi den tolosarrak saiakera egin eta jada nerbioak barretu dituela. Gogoratu behar da Caminosek Iker Karrera amezketarrak 2004an egindako marka hobetu nahi zuela eta Karrerak 11 aldiz igo zuela Txindoki.

Eguraldi txarra zela-eta erronka abuztuaren 14ra arte atzeratzea erabaki zuten eta eguna iritsita jende ugari gerturatu zen Larraitz ingurura. Arratsaldeko seitan hasi zuen oinazealdia: «Oso-osu urduri

Hirugarren eta bosgarren itzuliak izan ziren gogorrenak Tolosako kirolariarentzat

hasi nintzen, jende asko gerturatu zen Txindokira eta atzeratzeak ere kalte egin zidan, asteburu hori oso gaizki pasa nuen».

Aipatu bezala 18:00etan ateratu zen eta 08:00ak ingurura arte ibili zen Txindokin gora eta behera, azkenean sei aldiz ere igo zelarik ton-torrera. Tentsioa ordea, jasanezina egin zitzaion. «Neure burua estutu nuen eta lehenengo buelta oso urduri negoela egin banuen ere, ondoren buelta emango niola uste nuen, baina tentsioak gora egin

zuen», argitu du. «Lehenengo bueltan hankak gaizki nituen, arnasa ondo hartzen nuen, baina urduritasunarengatik tope bat egin zitzaidan sabelean eta ezin izan nuen egoera gainditu», nabarmendu du.

Gibela

Urduritasuna eta nekea dela eta, beharbada, gibela ere hazita zuela konturatu ziren azkenean, eta egokiena erronka bertan behera uztea izango zela adostu zuten. «Etxera itzultzean etzan, dutxatu eta eman nion buelta, izan ere fisikoki ondo nengoen», oroitzen du.

Sei itzuliak nahiko modu onean egin zituen tolosarrak, bi ordutako tartean, gutxi gorabehera, itzuli bakoitzeko, baina hori ez zen nahikoa Amezketako mendi lasterkariak 2004. urtean egindakoa hobetzeko.

Lehenengo itzulian ez zen oso eroso egon Caminos, baina itzularik txarrenak, hala ere, hirugarrena eta bosgarrena izan zirela dio: «Hirugarrena txarra izan zen, baina bosgarrena are txarragoa, asko sufritu nuen, ordu bete eta 25 minututan igo nuen, baina asko sufritu nuen».

Azken itzulia ere oso gogorra izan zen, nahiz eta uste baino 11 minutu gutxiago behar izan.

Urduritasuna

Kirolariaren hitzetan urduritasuna ezin izan zuen gailendu eta beharbada horregatik ez du erronka egitea lortu. «Urduri nengoela banekien, argi zegoen, data aldatzekak, hara iritsi eta horrenbeste jende ikusteak... baina pasako zela pentsatu nuen. Berez urduria naiz, oso urduria».

Caminosek asko eskertzen die erronka ikustera Txindoki inguruetara gerturatutako jende andanak emandako animoak: «Asko animatu ninduten, lasai egoteko esaten zidaten, batez ere nire osa-



Aurtengoan lortu ez badu ere Caminos segituan hasiko da entrenatzen datorren udan berriz ere saiatzeko. R. CALVO

bak, nirekin gora eta behera ibili zenak, baina ez zen posible izan...».

«Mundua goitik behera erori zitzaidan»

Caminosek hilabeteak zeramatzan proba prestatzen, lehenengo Leaburu eta Belauntza inguruan

Hurrengorako psikologikoki ere prestatu beharko duela dio Caminosek

aritu zen entrenatzen eta gerora Txindokin bertan ere egin zituen hainbat saiakera.

Hilabeteak eman zituen Iker Karrerak egindako lana hobetu ahal izateko lanean, nahiz eta bere lehenetsuna «lan txukuna» egitea zela errepikatu zuen behin eta berri. Ondorioz, zazpigarrenengo bueltan erronka bertan beharautzi behar zuela konturatu berakoan «mundua goitik behera» erori zitzaidan. «Sekulako disgustua hartu nuen, kristoren ilusioa nuen eta

gustura aritu nintzen entrenatzen. Jendeak zer esango zuen pentsatzen hasi nintzen, tentsioa kristorena zen... Etxera lur jota itzuli nintzen».

Fisikoki ez zuela horrenbesteko egurra jaso dio kirolariak eta horregatik uste du psikologikoki gehiago ez prestatzean egin zuela kale. «Hurrengoan psikologikoki ere prestatu beharko dut, horixe esan dit jende askok, osabak, masajistak...».

Tolosarrak hala ere, ez du amore emango eta berriz ere saiatuko da Txindoki 24 ordutan 12 aldiz igo eta amezketarraren marka hobetzen: «Saiatuko naiz behintzat. Seguruena ez dut abuztuaren egingo maizta edota ekainean saiatuko naiz bero gutxi xegago egiten duela aprobeztatuz, baina gainontzekoan plateamendua bera da, Ikerren marka hobetzea. Entrenamendua antzeko moduan egingo dut, erresistentzia landu nahi dut, fondoa badut eta. Iraila bukaeran hasiko naiz seguruenik, baina ikusiko dut, pixkanaka joan nahi dut eta. Oraingoan, hala ere, psikologi-

koki ere prestatuko naiz eta batez ere urduritasuna neurtzen saiatuko naiz, oso urduria naiz berez, baina hauek kontrolatzen ikasi beharko dut».

Bestalde, erronkaren berri ematerakoan Caminosek orain urte bete-edo hasitako dieta makrobiotikoarekin osasuntsu eta indartsu

Datorren maizta eta ekaina aldean berriz ere saiakera egiteko asmoa du


dagoela frogatzeko ere baliatu nahi zuela argitu zuen eta erronkari aurre egitea lortu ez badu ere fisikoki ondo dagoela eta dieta makrobiotikoarekin jarraituko duela eta psikologikoki ez prestatu izana dira, eta beraz dieta makrobiotikoarekin jarraituko dut, mesede egingen baitdit». Bien bitartean, entrenatzen ikusi ahal izango dugu Patxi Caminos Belauntza eta Leaburu arteko aldapan gora eta behera.



bidali opor
hauetako
argazkiak!



sari
mundialak



NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo
HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara

Oraingoan Zeberioak ezin izan du etxeratu txapela

Elduain » 35-33 galdu zuen Miguel Mari Urrutiaren aurka atzo Galarretan, Casino Kursaal Txapelketan.

ERREDAKZIOA

Partida borrokatua jokatu zuten atzo arratsaldean, Patxi Zeberio elduaindarrak eta Miguel Mari Urrutia nafarrak. Azkenean 35-33 galdu zuen Elduaingo erremontistak eta Urrutiak eraman zuen Casino Kursaal Txapelketa. Sakez ez zuen tantorik egin Zeberioak eta hala ere 33 tantoetara iritsi zen. «Partida txukuna jokatu dut eta gustura nago egindakoarekin», azaldu zuen elduaindarrak.

«Hustuta» bukatu zuen partida Patxi Zeberioak: «Ikagarri ibili naiz kantxan, kilometro asko egin ez eta oso nekatuta bukatu dut». Sakez tantorik ez egitea nola ikusten zuen galdetuta, elduaindarrak ez zuela gaizki sakatu aitortu zuen: «Urrutiak ondo errestatu du eta txapa gainean utzi ditu pilotak». Partida gogorra izan zen eta Zeberioak Urrutia zoriondu zuen «txapeldun handia» dela esanez. Defentsan egindako lanarekin ere pozik agertu zuen: «Majo ibili naiz defentsan eta daukadan guztia eman dut». Elduaindarrak, txapela ez bazuen lortu ere, herrian ospatzeko asmoa azaldu zuen, festak direla ere aprobetxatuz. «Ospatu beharra dago. Inongo lotsarik ez dut egindako partidarekin eta jendea zain egongo da afarirako». Urrutiak ere bere lagun eta arerioa goraipatu zuen egindako partida-



Urrutia eta Zeberio garaikurrekin, partidaren amaieran. J. ZABALZA

rengatik. Partidan zehar «arriskatu» behar izan zuela azaldu zuen txapela lortu ahal izateko. Oso partekatua izan zen Casino Kurssaaleko finala eta horren adibide da markagailuan ez zela abantaila handirik izan. Azkenean Urrutiaren buru gainera erori zen txapela. Bere hitzetan, «biak izan zitezkeen txapeldunak», baina zortea bere alde erori zen.

Elkarren aurka jarraian jokatzen zuten Casino Kurssaaleko hirugarren finala izan zen atzokoak bi

erremontistentzat. 2007koan Patxi Zeberio izan zen garaile, eta azken bietan berriz Miguel Mari Urrutia gailendu da.

Peñascal Fundazioak lau kurtso eskainiko ditu ikasturte berrian

Tolosa » Hilaren 10era arte eman daiteke izena; soldadura, ostalaritza, arotza eta mekanizazio kurtsoak daude aukeran.

Teorikoa eta praktikoa

Formazioa praktikoa izaten da hein handi batean, baina klase teorikoak ere izaten dira, bai teknikoak bai eta lanbideak eskatzen dituen ezaugarrietan oinarritutakoak. Halaber, ikastaroan zehar, GESO (eskola-graduatu) titulua lortzeko ere prestatzen dituzte ikasleak. Hala, programa arrakastaz amaitzen dutenek lanean has-teko aukera dute, edo bestela Erdi Mailako zentroetan formazioarekin jarraitu.

Zentroa bisitatu nahi izanez gero, edota edozein zalantza argitzeko, 943 67 61 61 edo 943 67 51 95 zenbakietara hots egin daiteke.

ERREDAKZIOA

Peñascal Fundazioak lanbide-prestakuntzaren hastapeneko programaren baitan arlo desberdinetako lau kurtso antolatu ditu ikasturte honetarako, Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean. Izena irailaren 10a baino lehen eman behar dute interesatuek.

Programa hauetan parte hartzeko 16-18 urte bitarte eduki behar dira, eta GESO titulurik gabekoak izan behar dira.

Hain zuzen, soldadura, txirbil-harroketazko mekanizazioa (tor-nua, fresatzeko makina, taladroa, CNC...), arotza eta ostalaritza kurtsoak eskainiko dituzte. Kurtsoek bi urteko iraupena dute, hau da, 2.000 ordu inguru. Horietatik 500 inguru inguruko enpresetan egini-ko praktikak izaten dira.

Doakoak izaten dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak finantzen baititu.



Txirbil-harroketazko mekanizazio kurtsoa emango dute aurten. I.T.

Pertsona bat erreskatatu dute Txindoki menditik

Abaltzisketa

Gizonezkoak zaldi baten ostikada jaso zuen eta Ertzaintzaren helikopteroan eraman zuten erietxera.

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian Abaltzisketan, Txindoki mendiko Alotza inguruan, 49 urteko gizon bat erreskatatu zuen Ertzaintzak helikopteroaren laguntzaz. Gizonezkoak abereak zaintzen ari zenean istripua izan zuen.

Hain zuzen ere, gertaera atzo eguerdiko hamabiak hogeitxigotan jazo zen. Abereak zaintzen

arizen gizonezko batek zaldi baten ostikada jaso zuen, eta ondorioz, ezkerreko hanka hautsi zuen. Kalteuarekin zeuden pertsonak 112 telefono zenbakira deitu zuten.

Helikopterotik Donostiara

Zauritua lurretik eraman ezin izan zutenaz, Ertzaintzak helikopteroa mobilizatu behar izan zuela jakinarazi zuen. Helikopteroa gizona zegoen lekutik 100 metrora lurreratu zen, ondoren, zauritua esku-ohere batean eraman zuten.

Geroago, biktimia Miramoneko heliportura eraman zuten eta bertatik Gipuzkoako ospitalera eraman dute; eguerdiko ordu bata aldera heldu da.

Iraileko aldapari aurre egiten laguntzeko, festaz festa

Gizartea » Jaietan murgilduta dira Elduain, Lizartza, Alkiza, Bedaio eta Izaskun; Irigoien marka berria jartzen saiatuko da.

ERREDAKZIOA

Abuztuko festa zaparradaren ostean, onenak emanda zeudela uste zutenak oker daude. Oraindik ere, jaietarako gogoia dutenek bai baitute zer gozaturik eskualdean. As-teburu honetan, Elduainen, Lizartzan, Bedaion, Izaskunen eta Alkizan ari dira aspatzen festak.

Alkizan, txirindulari lasterketa izan zen atzo goizean. Bi urtetik hamabira bitarteko 43 haurrek hartu zuten parte. Hauekadinaren arabera bost mailatan banatu ziren. Lehendabizi denek batera itzuli bat egin zuten ibilbidea nondik nora zihoan ikusteko, eta ondoren, Gorka Ugartemendiak eman zion hasiera probari. Lasterketaren amaieran opariak banatu zituzten parte-hartzaile guztien artean.

Izaskun auzoan, herenegun ekin zien festei. Atzo goizean haurrak izan ziren protagonista. Lehendabizi gosaldu egin zuten, eta ondoren, jokuetan parte hartu zuten. Hemen galdutako indarrak berreskuratzeko berri, hamaiketako egin zuten gaztetxoek. Goizari amaiera emateko, buruhandiak, erraldoiak eta dultzaineroak atera ziren kalera, festa giroa zabaltzera.

Bezperako parrandaren ostean,

atzo arratsaldera arte ez zen animarik ere ikusten Bedaion. Herri afariaren usaira eta ume jolasak aitzakiatzat hartuta pixkanaka jendea animatzen hasi zen bazkalostean. Frontoian, 30 haur inguru elkartu ziren. Helduenak jokuetan parte hartzen zuten bitartean, txikiak margotzen aritu ziren.

Lizartzan berri, mahaiaren bueltan izan zen festa nagusia atzokoan. Goizean, tortila patata txapelketa izan zen eta ondoren, herri bazkaria. 80 lagun inguru elkartu ziren otordura. Tarteetan, txoko berezi bat egin zieten herriko bost presoei, beraien argazkiak jarrita.

Eskualdean, festetan murgilduta dagoen azken herria Elduain da. Hemen, zaldi gurdi gainean, herri-tikitulitxo bat egiteko aukera izan zuten herritarrek.

Irigoien, marka berria jartzen saiatuko da gaur

Aimar Irigoien harri-jasotzaile erreizildarrak lotura berezia du Bedaioarekin, eta urteroko hitzorduari ez dio hutsik egiten. Aurtengoa hala ere, berezia izango da. Hainbat eta hainbat marka hautsi ditu gazteak, eta gaurkoan, beste bat apurtzen saiatuko da.

18:30ean hasiko da herri kirol jaialdia. Bertan, hiru minutuko txanda batean 137,5 kiloko harriarekin ahalik eta altxaldi gehienak egiten saiatuko da. Orain arteko marka onena Izeta II.ak jarria da. 1996an, aiarrak 20 jasoaldi egin zizkion harri kubikoari, hiru minututan.



Txirindulari lasterketa izan zen atzo Alkizan; proba hasi aurretik, denek elkarrekin itzuli bat egin zuten. E. EZEIZA



Izaskunen erraldoiak izan ziren atzo; Lizartzan 80 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian. E. EZEIZA



Herriatik barrena, zaldi gurdiaren gainean itzuli bat egiteko aukera izan zuten atzo Elduaingoek; Bedaion, haurrentzako jolasak izan ziren; ez hain haurrek ere parte hartu zuten. E. EZEIZA



E Elkarrizketa

MIGUEL OTEGI ▶ Formula Renault Europako pilotua



ENERITZ IRAOLA

«Etorkizunari begira ere hor jarraitzea gustatuko litzaidake»

Asteasu ▶ Hamazazpi urte dituen asteasuar honek nazioarte mailan lehiatzea lortu du jadanik Formula Renault Europako Txapelketetan.

ENERITZ IRAOLA

Miguel Otegi (Asteasu, 1992) Formula Renault Europako pilotua da. Zazpi urterekin kart-etan ibiltzen hasi zenetik motorren munduari lotua dago. Afizio bezala hasi zena egunen batean ofizio bilakatzeko nahiko luke, 1 Formulako pilotua izatera iritsiz.

Zenbat urterekin eta nola hasi zinen mundu honetan?

Zazpi urte nituenean oso jatun txarra nintzen, nire urtebetetze egunean kart bat alkilatatu zidan aitak opari bezala. Gehiago jaten hasten banintzen kart-aerosiko zidala esan zidan. Nik tratua onartu eta horrela, ni ondo jaten saiatu eta aitak kart-a erosi egin zidan trukean. Hasieran poligonotan ibiltzen nintzen, gero Olaberrian. Pixkanaka mundu horretan sartu nintzen.

Kart-en modalitatean hiru urtez Euskal Herri mailan lehiatu nintzen. Gero estatu mailan aritu nintzen eta azkenean nazioartera pasatzea lortu nuen. Duela urte bete hasi nintzen formula 2000an korritzen.

Zein mailatan aritzen zara orain? Formula Renault European ibiltzen naiz.

Zer moduz Epsilon Euskadi taldean?

Oso gustura nago. Lehenengo denboraldia 1 Quick Valentzia taldearekin egin nuen eta aurtengo denboraldia Epsilon Euskadi taldearekin egingo dut, hurrengo urtean talde berarekin jarraitzea gustatuko litzaidake.

Aldi handia al dago kart eta formularen artean?

Bi gauza oso desberdin dira. Nor-

malean batean ondo ibiltzen dena, bestean ere ondo ibiltzen da. Baina ez da matematikoa ere. Oso gauza desberdina da, batek hasteko kanbioak ditu, besteak ez.

Kirol honetan, ekipoa bilatzea erraza al da?

Ez da erraza. Kirol honetako gauzarik zailena diru asko behar dela da. Kasu hauetan beti gertatzen den bezala dirua edukiz gero, edozein ekipok hartuko zaitu.

Zein urte sasoiatan izaten duzu entrenamendu gehien?

Neguko entrenamenduak libreak izaten dira. Entrenamendu hauek ekipoak probatzeko erabiltzen dira. Hauetan erabakitzen da zein talderekin zauden gustuen. Hortik aurrera lasterketen egutegi bat ematen dizute. Txapelketetan entrenamendu libreak noiz egin ditzaitezun esaten dizute. Beraiek zehazten dizkizuten egunetatik aurrera ezin duzu entrenatu.

Eta txapelketa gehienak noiz jokatzen dira?

Udaran abuztu osoa libre izaten

dut adibidez. Hortik aurrera urte osoan zehar izaten dira txapelketak.

Ikasketak eta karrerak bateratzea posible al da?

Orain arte moldatu naiz. Hala ere, aurtun batxilergoan hasi naiz eta gehiago kostatzen zaidan arren ateratzea lortu dut.

Nolako izaten da entrenamendu egun bat?

Goizean 6:30ak 7:00ak aldean jekitzen naiz. Handik, mekanikoekin zirkuitora joaten naiz. 9:00ak aldera irekitzen da sesioa eta denborabitate horretan injeniariekin lanean aritzen naiz. Egun guztia antolatzen joaten gara eta semaforoa berde jartzen denetik aurrera pistari bueltak ematen hasten naiz injeniarri eta mekanikoekin batera lanean.

Non entrenatzen duzu gehienetan?

Kanpoan egiten ditut entrenamenduak, lasterketaren arabera izaten da. Hemen ez dago pistarik, horregatik kanpora joan behar izaten dut. Lasterketagehienak Euro-

pan izaten dira: Frantzia, Ingalaterran...

Euskal Herriko taldekiderik ba al duzu?

Ez kanpoan jokatzen ditut txapelketa guztiak eta ni naiz hemen eskualdetik eta baita Euskal Herriko taldean parte hartzen duen bakarra.

Nora iritsi nahiko zenuke?

Gustatu guztioi bezala 1 Formulara igotzea gustatuko litzaidake, baina bide gehiago ere badaude. Etorkizunean ere hor jarraitzea gustatuko litzaidake, aukera dagoen bitartean horri eutsi.

Zein izan dira zure pilotu ibilbidean egunik hobereana eta txarreana?

Egun onak asko izan ditut, zaila da bat erabakitzea. Eta txarrak aipatzekotan, kart-etan nebilela istripu bat izan nuenekoa agian. Baina oraingoz ez dut ezer larria izan.

Zein asmo dituzu datozen hilabeteetarako?

Entrenatzen jarraitu eta datorren urrian bertan Seat Leon batekin Montmelloko 24 orduetan parte hartuko dut.



27°
10°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 28°
HOTZENA 17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 034. ibarra/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Lizartza.** Kutsuologo Agirrebarrena lizartzarraren espetxeratzeara salatzeako manifestazioa deitu du ezker abertzaleak 19:00etan.
■ **Leitza.** Talo Eguna herriko plazan. 10:00etatik aurrera, talogileak, artisauak, herri kirolak, Plazaola Partzuegoak antolatuta.

Erakusketak

■ **Tolosa.** *Biblioteka en guerra* erakusketak dibulgatiboa Aranburu Jauregian

Zinema

■ **Tolosa.** *Up* haurrentzako filma

emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

■ **Tolosa.** *Enemigos publicos* filma emango dute Leidor aretoan gaur 19:30etan eta 22:00etan eta bihar (Ikuslearen egunean) 20:30etan.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Udaberri Dantzari Taldeak haurrentzako euskal dantza ikastaroak antolatu ditu hilaren 18tik aurrera, ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan. Izen-ematea, egoitzan (Kondeko Aldapa 20, behe) hilaren 9tik 11ra, 17:00etatik 20:00etara.

Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Pirinioetako Perdido (3.355m) eta Astazu (3.071m) mendietara irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak hilaren 11tik 13ra. Larunbateko, hau da, hilaren 12ko gaua aterpetxe libre edo kanpinean igaroko dute. Izen-ematea, 688 698642 telefono zanbakian.
■ **Tolosa.** Alpino Uzturrek 13rako mendi irteera bat antolatu Orbaran hasi eta Berrendi (1.354 m), Goñiburu (1.464 m), Idorrokia (1.492 m), Abodi (1.533 m) mendiak igoz. Irteera, Santa Klaratik 07:30ean. Izen-ematea: 943

652789 edo alpinouzturre@hotmail.com.

Kirola

■ **Tolosa.** Proba ezazu zuk zerorrek lelopean, Udalak emakumeei zuzendutako lasterketa entrenamendu ikastaroa antolatu du iaz bezala, doan. Informazioa eta izen-ematea, Usabal kiroldegian.

Irteerak

■ **Tolosa.** La Albercara (Salamanca) irteera antolatu du Harizpe judiatu elkarteak irailaren 13tik 19ra. Izen-ematea, elkartean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Iruztzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 675118.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Maite Guibelalde Asensio.

Zorionak, abuelo, abuela, Arantxa eta Kakunen partetik. Muxu.



Urte askoan!

Itoitz Agirrezabal Nieto.

Gaur 3 urte. Urte askotarako maittea. Muxu haundi-haundi bat. Amatxo Amaia eta aitaxo Beltza.



Urte askoan!

Dolores Artola Artola (Lizartza).

Gaur 83 urte. Ama, amaginarreba eta amona ezin hobea. Zorionak bihotz-bihotzez. Seme-alaba, suhi-errain eta biloben partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

ZUMARRAGA · URRETXUKO I. DUATLOIA

Irailak
12



Ordua
17:00



asirauto

PLAZAOLA



Gurutze Gorria

IZEN EMATEA: www.triatloi.org

Frantsesa

Inglesa

Alemana



2009-10 ikasturtearen hasiera: **IRAILAREN 16a**
40 urteko **ESPERIENTZIA** eta **KALITATEA**

Ongi etorria izango zara informazioa jasotzeko edo izena emateko:
943 69 63 73



Welcome! Willkommen! Bienvenu!

TOLOSA: Martin Jose Iraola 8, 3-Ezk. - Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 / Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 ernto. / Gorosabel 40 - Tel: 943 652372 -
VILLABONA: Kale Berria 46, 2-B - Tel/Fax 943 69 63 73 - **ALEGIA:** San Juan 46 - Tel/Fax: 943 65 57 26